



UDALEKUAK 2023

Arbizuko Udalak aurten ere **udako aisialdi-tailerrak** antolatuko ditu, herriko haurrek euskaraz eta berdintasunean jolastu eta herriaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Udalekuak **uztailaren 3tik 31ra** izanen dira, 3-10 urte bitarteko haurrentzat (2013-2020 urte bitartean jaiotakoentzat).

Ordutegia: goizeko 10:00etatik 13:00era. ***Oharra:** Hezitzaileekin baloratuko dugu ordu erdi lehenago sartu ahal izateko aukera.

Prezioak: 85 € (haur bat), 130 € (bi haur edo gehiago), 55 € (tutore guztiak langabezian).

Izena emateko: udaletxean (bertara joan, info@arbizu.eus helbidera idatzi, edo 948 460017 telefonora hots egin) **ekainaren 7-tik 16-ra**

Arbizuko Udala